

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

345/2019 Foru Agindua, uztailaren 10ekoa, onesten duena Inés Vadillo Alzola andrea atxikitzea idazkari (kodea: 1024.001), Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buru, lanpostura

Apirilaren 12ko 195/2019 Foru Aginduaren bidez, deia egin zen idazkari (kodea: 1024.001), Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buru, lanpostua izendapen askearen bidez betetzeko.

Eskabideak egiteko epea amaituta eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendariak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoituan, Ines Vadillo Alzola proposatu zuen idazkari (kodea: 1024.001), Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buru, lanposturako.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Inés Vadillo Alzola atxikitzea idazkari (kodea: 1024.001), Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buru, lanpostura.

Bigarrena. Foru agindu honek 2019ko uztailaren 22tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 10a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR